

Animaliak

Lau hankan edo arrastan;
hegalez, zeruan edo urpean.
Lumaz, ezkatatz, ilez edo azal biluzik.
Arrautzatik edo sabeletik.
Urak edo aireak ito.
Jaio, hazi, mugitu, jan, ugaltu eta hil...
elkarrekin eta bakarrik, animalioak.

Zertan trebatuko gara...

Ofizioka ariko gara, 8ko txikian eta handian;
azken puntua eta oinak hartuta, atzekoz aurrerako
teknikarekin jardungo dugu bertsoan.

Plazara!

Eskolako txikienei azaltzeko, animaliei buruzko
horma-irudia osa genezake.
Ikusi-makusi jolasa ere pozik egin dezakete
gure eskutik!
Ofizioka sortzen ditugun bertsoaldiekin esketxak ere
egin genitzake.







O r i o k o b a l e a r e n a k

Orbegozo

1901. urtean Orion balea harrapatu zuten, arraunean itsasoko erraldoiarengana joanda. Bertso ezagun hauek jaso dute, ederki, garai hartan nola arrantzatzen zen balea.

- 1 Mila bederatziehun ta lehenengo **urtian** maiatzaren hamalau garren **egunian** Orioko herriko barraren **aurrian** balea agertu zan beatzik **aldian**.
- 2 Handia bazan ere azkarra **ibilian** bueltaka han zebilen joan da **etorrian** hondarra harrotuaz murgil **igerian** zorriak zeuzkan eta haiek bota **nahian**.
- 3 Ikusi zutenean hala **zebilela** berehala joan ziran traineruan **bila**; arpoi ta dinamitak eta soka-**pila** aguro ekartzeko ez zan jende **hila**.
- 4 Bost traineru joan ziran patro **banarekin** jende bizkor bikain ta guztiz **onarekin**: Manuel Olaizola eta **Loidirekin**, Uranga, Atxaga ta **Manterolarekin**.
- 5 Baleak egindako salto ta **marruak** ziran izugarri ta **ikaratzekuak**; atzera eragin gabe hango **arriskuak** arpoiakin hil zuten han ziran **hanguak!**
- 6 Bost txalupa jiran da erdian **balia** gizonak egin zuten bai nahiko **pelia**; ikusi zutenean hila edo **itua** lehorretikan bazan biba ta **txalua**.
- 7 Hamabi metro luze gerria hamar **lodi** buztan pala lau zabal alboetan pala **bi**; ezpainetan bizarrak beste ilera **bi** orraziak bezela hain zeuzkan **ederki**.
- 8 Gorputzez zan mila ta berrehun **arrua** beste berrehun mingain ta tripa **barrua**; gutxi janez ez zegon batere **galdua** tinako sei pezetan izan zan **saldua**.
- 9 Gertatua jarri det egiaren **alde** hau horrela ez bada jendeari **galde**; bihotzez pozturikan atsegintsu **gaude** biba oriotarrak esan beldur **gabe**.

Jende animalia

Miren Aretxe Sarasola



Giza abereon artean fauna zabala dago.

Gure jarreretan, animalia baten edo bestearen antza hartzen dugu sarri.

Sorta abestu eta pentsa dezagun gero: animalia bat banintz, zein izango nintzateke?

Doinua: Pello Joxepe

Zortziko handia

- 1** Badago jende KAMELEOIA eta besteen **aurrean** inoiz ere ez du nabarmendu nahi kamuflatzen da **denean**: hostoan berde, hormigoian gris eta marroi **enborrean...** Hor dagoela antzematen da lotsagorritzen **denean!**
- 2** Jende TRIKUA izutzen bada morkots bihurtzen da **bizkor!** Horretarako du bizkarrean hainbeste arantza **gogor.** Eta sabela izanagatik gozo, leun ta **laztankor...** Besarkada bat behar du baina ez zaio ausartzen **inor!**
- 3** SAGUZAR jende filosofoa ez pentsa denik **tentela!** Leize ilunean buruz behera hankaz gora **dagoela** zerua behean ta lurra goian ikusten ditu **horrela...** Eta nork dio oker dagola eta alderantziz **dela!**
- 4** Eta badago jende BELDARRA bihurtzen dena ***imago** ingurukoek oso kontuan hartu gabea **lehenago...** Orain jendeak esanagatik: "TXIMELETA, eder **hago!**" bere burua ez du ikusten lehen baino **ederrago!**

*Beldarra, metamorfosiaren ondoren, imago bihurtzen da (tximeleta itxuran).

Koplak zuri, "Txuri"!

Pozik gaude, txakurra ekarri dugu-eta etxera!
Koplak jarriko dizkiogu, puntu erdika, neurri txikian.

Doinua: Goizian goiz jeikirik
Kopla txikia

gurasoei **lata**

ederki **kostata.**

etxera **txakurra**

jaten du **hezurra.**

pozik eta **alai**

pentsurik ez du **nahi.**

hau ez da **Chihuahua**


pasatzen du **gaua.**

lagunei **zaunkaka**

egiten du **kaka.**

panpina **dirudi**


maite zaitut **Txuri!**



Karta jokoa hartu eta, “Animaliak” sailaren barruan, “A ze parea, karakola eta barea” multzoa hartuko dugu. **Oin bikoteekin, kopletan** egingo dugu animaliei buruz.



Karta jokoa hartu eta, "Animaliak" sailaren barruan, "Urpeko ontzian bidaia" multzoa hartuko dugu. **Azken puntua eta 3 oinak** emango zaizkigu, **8ko txikian** aritzeko. Hauxe da gaia: urpeko ontzian bidaia egitera gonbidatu gaituzte.



Karta jokoa hartu eta, “Animaliak” sailaren barruan, “Basoan galduta” multzoa hartuko dugu. **Ofizioka 8ko handian** emango zaizkigu. **puntua eta 3 oinak** Hauxe da gaia: elkarrekin basora joan eta galduta zaudete. Gaua iritsi da: bat beldurrak airean dabil eta bestea, berriz, lasai.

Jolasa

Ikusi makusi

Jolas gaitezen asmakizunetan!

Puntu bakarrean emango zaigu pista.

Ea asmatzen dugun, berehalakoan, irudiko zein animalia den.

Adi belarria: erantzunak errimatu egiten du-eta!

1 Honentzat txikia da
gelako **atea**

.....

2 Moko luzea eta
handia **daukana**

.....

3 Lianatik zintzilik
bizi-bizi **noa**

.....

4 Ez jarri nire aurrean,
ez izan **eroa**

.....

5 Oihaneko errege
kolorez **marroia**

.....

6 Burua izaten dut
lurpean **sartuta**

.....

7 Urpean egiten dut
gaueroko **loa**

.....

8 Nire tripa bete dut
banbu pixkat **janda**

.....

9 Potolo-potolo ta
begetarianoa

.....

10 Hostoak jaten ditut
eta ez **alfalfa**

.....

